

HIZKUNTZA PROIEKTUA

IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUA

Ikastetxeko hizkuntza proiektuaren **helburua argia** da: ikasle guztiek gaztelania eta euskara menperatu eta ingeles gaitasun handia lortu dezaten. Bigarren hezkuntzan, aukerako irakasgaia bezala, laugarren hizkuntza bat eskaintzen du: frantsesa¹.

Horretarako, ikastetxearen gainerako hezkuntza printzipio guztiekin batera, **oinarrizko lau printzipio** hauetatik abiatzen gara.

1. Hizkuntza desberdinen irakaskuntza sistematikoki koordinatu eta ebaluatuko da. Horrela bermatuko da hizkuntza batean ikasia besteei pasatzen zaiela eta elkar indartzen dutela.
2. Hizkuntza desberdinen pisua eskolatze aldian zehar aldatuko da eta kurtsoaren arabera modu berezi batean hizkuntza batzuetan edo besteetan eragingo da. Ikastetxeak aldaketa egokiak egingo ditu ezarritako hezkuntza helburu guztiak lortzearren.
3. Hizkuntza gaitasun on batzuek garapen handiena ahalbidetuko dute beste ezagutza-arlo eta pertsonaren eremu guztietan.
4. Hizkuntza bakoitzaren klaseak dagokion bere hezkuntzan izango dira.

Azken hogeitun urte hauetan zehar ebaluazio jarraitu batzuk (bereziki barruko ebaluazioak, ISEI-IVEI-koak, PISA txostenak, hautaprobak) egin dira. Ebaluazio horien guztien, gure ingurune sozio-kulturalaren azterketaren eta ikasteko praktika eta teoria batzuen estudioaren fruitua da **eskaintzen dugun Hizkuntza Proiektua**.

Proposatzen dugun antolakuntzan **gaztelania eta euskarari ematen zaizkien orduak** ondoko grafikoaren arabera aldatzen dira. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan aukerazko irakasgai batzuk euskaraz eta ingelesez eskainiko dira eta baita hizkuntzak indartzeko legeriak ahalbidetzen dituen beste aukera batzuk ere.


Orduen proportzioa aldatuko da ikasleek hizkuntza batean edo bestean behar dituzten errefortzuen gisara, egindako gaitasun-ebaluazioen modura, legerian izandako aldaketen arabera...

Ingelesaren ikasketa 3 urterekin hasten da, gero bere pisua handitzen doa eta Batxilergoan ikasleak aukeratzen duenaren arabera orduen % 22ra iritsi daiteke.

Laugarren hizkuntza, **frantsesa**, aukerazko ikasgaia bezala eta legeriak markatzen dituen baldintza eta orduekin DBHren ondoan eskaintzen da.

¹ Hauek dira baita ere indarrean dagoen legeriak ezarri dituen xedeak (ELO kap. I, artik. 2 j; kap. II artik. 17 e, f; kap. III artik. 23 h,i), beraz esandako helburuak bermatuko dituen hizkuntza proposamen bat edukitzea ikastetxearen erantzukizuna eta ikasleen eskubidea da.

hizkuntzen proportzioa mailaz maila (gutxi gorabehera)



Haur Hezkuntzan erreferentziazko hizkuntza euskara da.

Lehen Hezkuntzan hizkuntzei dagokienez irakasgai bakoitzak duen erreferentzia hauxe da:

G = gaztelania E = euskara I = ingelesa

	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa
Gaztelania	G	G	G
Euskara/ Hizkuntza	E	E	E
Ingelesa	I	I	I
Matematika	E	G	G
Inguruaren ezaguera	E	E	E
Arte-hezkuntza	E	E	E
Gorputz hezkuntza	E	E	E
Musika	E	E	E
Erljioa	E	E	E
Tutoretza	E	E	E

Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan hizkuntzen antolamendua hauxe izango da:

G = gaztelania E = euskara I = ingelesa F = frantsesa

	DBH				BATXILERGAOA	
	1º	2º	3º	4º	1. kurtsoa	2. kurtsoa
Irakasgaia/ Eredua	B	B	B	B	A	A
Gaztelania	G	G	G	G	G	G
Euskara/ Hizkuntza	E	E	E	E	E	E
Ingelesa	I	I	I	I	I	I
Matematika	G	G	G	G	G	G
Natur zientziak/Fisika/Kimika	E	E	E	E	G	G
Gizarte/Historia/Geografia	E	E	E	E	G	G
Arte ezaguera	-	E	E	E	-	-
Gorputz hezkuntza	E	E	E	E	E	-
Musika	G	G	-	-	-	-
Informatika	E	E	E	E	-	-
Erljioa/Etika /Hiritartasuna	E	E	G	G	G	G
Teknologia	E	E	E	-	-	-
Tutoretza	E	E	E	E	-	-
Ingelesezko aukerakoa	-	I	I	I	I	I
Frantsesa	-	F	F	F	F	F
Euskarazko aukerakoa					E	-
Euskara indartua					E	E
Batxilergoko zenbait irakasgai					G	G